


AHETZE – Larre luzea

Goizean bilduak gira publikoki salatzeko hemen berean aurreikusten den egitasmoa.

Ahetzeko herrian gira eta zehazki AC191 lur eremuan, nun Larre Luzea etxalde ohia kokatua den. Eraikin hau laborantza bastimendu gisa kontsideratua da gaur eta Hirigintza Planaren baitan A zonalde batean gira (Laborantza eremua).



Ahetzeko hirigintza plana adostua izan zen 2019ko uztailan, lehenik herriko kontseiluan eta ondotik Euskal Elkargoan. Elkargoak du hirigintza eskumena, horregatik 2019ko uztailaren 20an etorri zen plenariorat. Azpimarratu behar da Ahetze Hirigintza Plana gehiengorik gabe onartu zela garaian (85 boz alde, 233 hautetsi zirelarik garaian Elkargoko kontseiluan).



Au vu de ce qui précède, il est demandé au Conseil communautaire de :

- prendre acte de l'avis favorable du commissaire-enquêteur ;
- approuver les modifications apportées au projet de révision du Plan Local d'Urbanisme de la commune d'Ahetze portées dans le tableau des modifications par rapport au dossier arrêté ;
- approuver le Plan Local d'Urbanisme révisé de la commune d'Ahetze, tel qu'annexé à la présente délibération.

En application de l'article R.153-21 du code de l'urbanisme, la présente délibération sera transmise en sous-préfecture de Bayonne, et fera l'objet d'un affichage pendant un mois en mairie d'Ahetze, ainsi qu'au siège de la Communauté d'Agglomération Pays Basque. Mention de cet affichage sera insérée en caractères apparents dans un journal diffusé dans le département. Chacune de ces formalités mentionnera le lieu où le Plan Local d'Urbanisme peut être consulté. Elle sera également publiée au recueil des actes administratifs de la Communauté d'Agglomération Pays Basque.

La présente délibération sera exécutoire :

- à compter de la réception à la Sous-Préfecture ;
- et dès l'exécution des formalités de publicité dans la presse.

Sur proposition de plus du tiers des membres présents, le vote se déroule au scrutin secret.

ADOpte A LA MAJORITE

Pour : 85 voix
Contre : 56 voix
Abstention : 23
Ne prend pas part au vote : 6
Non votants : 6

2019an, hirigintza plana prestaketa lanak ez zirelarik oraindik bukatuak, prentsaurreko bat antolatu zen hemendik zombait metrotan. Ahetzeko eta Arbonako oposizioeko taldeek baita elkarte batzuen ordezkariak salatzen zuten, arrazoi guztiekin, 1AUy (zonalde eraikigarria gune ekonomikoen egiteko) eremu baten deklarazioa. Ahetzeko herriko etxeak aurreikusten du ofiziale eremu bat sortzea lur eremu honen ondo ondoan. Gauzatzen baldin bada proiektua, laborantzarentzat dedikatuak diren lurak murriztuko dira.

Bainan gaur, beste aipagai bat dugu. Ondoko lur eremuari interesatuko gira eta bereziki etxalde ohi horri. Horrela ikusi eta ez du emaiten bainan batzuek holako pareta zaharrak ikusterakoan aukera handiak ikusten dituzte.

Proiektua bera aipatu aitzin, testuinguruko elementu batzuk...

2021 urte huntan, Tokiko Etxebizitza Plana (TEP) dokumentuaren idazketa lanen azken fasean sartzen da Euskal Elkargoa. Lehen bozka bat iragan behar da udaberrian eta bozka definitiboa heldu den udazkenean. TEP horri buruz hitz eginen dugu ondoko asteetan EHBAI gisa. Dokumentu honen funtzioa da Ipar Euskal Herri mailako estrategia finkatzea ondoko 6 urteentzat Bizitegien arloan.


Txosten hortan, diagnostiko oso bat egin da. Lehen aldia da holako argazki nahiko zehatza dugula, Ipar Euskal Herriko datuak barne biltzen dituenak. Bagenakien egoera larri bat bizitzen dugula, bainan manera objektiboan ikusterakoan etxebizitzaren datuak, bada beldurtzekoa. Merkatu libreak eragiten dituen ondorio sozial eta ekologikoak onartezinak dira.

Etxe salmentetan presio ikaragarria, lurraren prezioa, bigarren etxebizitzaren kopurua edota etxe hutsen kopuruak... Arazo guzi horiek identifikatuak ziren jadanik eta bakoitzarentzat erantzun kolektiboak eraiki behar dira, bakoitzak bere ardurak hartuz egoera manera eraginkorrean eta iraunkorrean aldatzeko.

Joan den urtetik bizi dugun krisi sanitarioak, etxeratze aginduak eta konfinamendu faseek bereziki, fenomeno horiek areagotzen dituzte gainera.

Eraikin hortan aurreikusten den proiektua

Hirigintza Planak aurreikusten du sailkapen aldaketa bat eraikin honentzat. Manera ulergarri batean erraiteko, gaur egun laborantzarako baliatzen ahal den etxe honek beste funtzio bat hartzen ahalko luke, kasu hortan bizitegiak egiteko zonalde bat bilakatzen ahal da.



Lur honen jabeak aurreikusten du saltzea. Hemen instalatua den laboraria jadanik mehatxatua da ofiziale eremuaren proiektuagatik, orain bigarren eraso zuzen bat du. Arrisku handirik hartu gabe, segurtatzen ahal da laborantza aktibitateak ez duela irautea hemen.

Salmenta aurreikusia da promotore bati. Honek eraikuntza baimen bat pausatu du herriko etxean berriketan, "standing handiko" 10 apartamendu egiteko. Ingelesko hitz horrek frogatzen du nolako bizitegiak egin nahi diren hemen eta nori zuzentzen diren. 10 pisu bainan horien artean ez da bakar bat sozial egoitza gisa.

Azkenean, lur honetan aurreikusten 10 bigarren etxebizitza sortzea !

Gaur egun salatu nahi duguna...

Bistan dena, gu bezalako mugimendu politiko batek ezin du onartu holako proiektuak biderkatzea eskuin eta ezker gure herrietan. Proiektua bera salatzen dugu, sortuko baitu zonalde eraikigarri bat orain arte laborantzari dedikatuak ziren lurretan.

Bainan goiz huntan beste helburu bat dugu ere. Nahi dugu publiko zabalari jakinarazi arratsalde huntan biltzen dela instantzia berezi bat, jende guttik ezagutzen dutenek. CDPENAF (Commission Départementale de Protection des Espaces Naturels, Agricoles et Forestiers) izeneko batzordea, gune ezezaguna da. Pauen biltzen den talde bat da, Prefetaren gidaritza pean, eta barne biltzen dituenak hautetsiak, administrazio batzuen ordezkariak eta elkarte batzuen arduradunak.

Arratsalde hasieran bilduko da hainbat proiektu baieztatzeko eta horien artean eraikin honen funtzio aldaketa.

Prentsaurreko honen bidez CDPENAF batzordeko kideei zuzentzen gira ere. Eskatzen diegu ez bozkatzea puntu hau, ez onartzea aldaketa.

Joan den abendoan, higiezin agentzia baten aitzinean bildu ginen Angelun azpimarratuz lurra eta etxebizitzaren arazoa konpontzeko, erantzun kolektiboak beharrezkoak direla, bakoitzak hartu beharko zituela bere ardurak. Promotoreak, agentziak, etxe egileak bainan ere tokiko hautetsiak herrietan edo elkargoan baita noski legeak bozkatzen dituzten parlamentariak, denak dira arduradun edo hobeki erran denek badute erantzukizun bat. Ez dugu ahanzten ere jabe batzuen erantzukizuna.

Manera orokorrean, jadanik engaiatu giren bezala eta gure usaiako egin moldeetan oinarrituz, ondoko hilabeteetan segituko dugu lanean. Alde batetik, salatzeko salagarri diren proiektuak edo ekintzak. Eta bestalde proposamen indar izaiteko, baita kolektiboki lan egiteko eskua luzatuz, aterabideen asmatzeko eta adosteko denen artean. Institutzioetan eta karrikan eraginen dugu podere publikoek arazo honen larritasuna uler dezaten.

Proiektu honetan hainbat gai salatzen ditugu !

- Laborantza lurren desagertzea
- Lur horiek ustiatzen dituen laborari baten aktibitatea mehatxatua
- Eraikiak ez diren lur batzuen eraikitzea
- Hemen eginen diren bizitegiak ez dira eskuragarri populazioaren gehiengoarentzat
- Bigarren etxebizitzak sortzen dira hemen
- "Standing" moduko bizitegiak, lurraren prezioaren igoera lagunduko duen proiektua
- ...
- ...